

# SEKTORE FEMINIZATUEN EGOERA OROKORRA HEGO EUSKAL HERRIKO ENPLEGUAN

2021eko otsaila



[www.lab.eus](http://www.lab.eus)



# AURKIBIDEA

SARRERA .....	05
ONDORIO NAGUSIAK.....	06
1. JARDUNALDI PARTZIALAK ETA BEHIN-BEHINEKOTASUNA.....	07
2. SEKTORE FEMINIZATUEN LAN BALDINTZAK .....	07
Emakumeon* presentzia gehien duten sektoreak .....	07
Hilean 1400 euro soldata azpiko sektoreak .....	08
• Pribatizaturiko sektore publikoak.....	10
• Zerbitzu pribatuetako langileak .....	10
Euren lan baldintzak hitzarmen bidez inoiz arautu gabeko langileak .....	11
Euren lan baldintzak lan-hitzarmen baten bidez arautzen ez dituzten langileen multzoan 4tik 3 emakumezkoa* da .....	11
3. SOLDATA ARRAKALA .....	12
Soldata arrakala: urtez urtez mantentzen den errealitatea .....	12
Soldata arrakala adierazitakoa baino handiagoa da .....	13
4. PENSIO ARRAKALA .....	14
Emakumeon* pentsioen erdia baino gehiago pobrezia-aren atalasearen azpitik .....	14
5. AZKEN HITZA .....	16



## SARRERA

Lan-munduan feminizatutako sektoreez hitz egiteak prekarietatean pentsatzera garamatza automatikoki. Prekarietate hori emakumeen\* egiturazko diskriminazioan gauzatzen da lan-merkatuan. Emakumeok\* etxean eta etxetik kanpo egiten ditugun lanak ez dira aitortzen oro har, martxoaren zortzietan oihukatzen genuen "lana soberan dugu, enplegua falta zaigu" hori alegia. Prekarietate hori, gainera, emakume\* langileak eta egiten ditugun lanak gutxiestearekin eta aintzat ez hartzearekin lotuta dago.

Zenbait lan feminizatzeak pentsarazten digu, halaber, emakume\* guztiok ez ditugula posizio berak enpleguaren mundu honetan. Gainera, lana sexuaren arabera banatzeaz gain, pertsonen jatorriaren arabera ere banatzen da. Agerikoa eta ukaezina da hori etxeko lanari erreparatzen badiogu, gehienak emakume\* migratuak eta arrazializatuak baitira, edo sasoikako langileei landan lanean. Ikusezin bihurtutako enpleguak dira, eta haien lan-baldintzak oso txarrak eta aintzatespenik gabekoak dira.

Denbora daramagu salatzen generoagatiko soldata-arrakala eta horrek gure oraingo eta etorkizuneko bizitzetan dituen ondorio zuzenak, atzetik beti "okerrago", "gutxiago", "partzialki", "aldi baterako"... adjektiboak jarrita, enplegu txarragoak, soldata baxuagoak, lan-baldintza kaxkarragoak, aldi baterako kontratuak, lanaldi partzialak, iristen ez diren erretiroak... Errepikatuz gero, berez gertatzen den zerbait dela pentsa genezake, saihestezina den zerbait.

Txosten hau aurkeztean lortu nahi dugun helburuetako bat lanak generoaren arabera bereizita egotearen eta lan horiek balorazio desberdina izatearen normalizazioarekin amaitzea ere bada. Horregatik, erabaki dugu errealitatea gaur egun den bezala aurkezten duguten zifrak eta ehunekoak aztertzea eta horiei buruz hitz egiten hastea, adjektibo horiek zer ezkutatzen duten ulertzen eta argitzen lagun diezagun.

Zeintzuk diren sektore feminizatuak, zer lan mota egiten diren horietan, zer baldintzatan ematen diren, zenbat kobratzen den horietan, zer hitzarmenek babesten dituzten, zergatik dauden pribatizatuta edo azpikontratatuta... horiek dira, besteak beste, gure buruari egiten genizkion galderetako batzuk.

Errealitatea ondo ezagutzea lehen urratsa da errealitatea aldatu ahal izateko. Bidegabekeriak eta diskriminazioak salatzea eta ezagutaraztea ere garrantzitsua da. Jendarte bezala, eta herrialde bezala, errealitate honen aurrean gaur egun Euskal Herrian ezin dugu ez jakin, ez ikusiarena egin eta ezta begirada desbideratu ere. Emakumeok\* diskriminatuta eta esplotatuta jarraitzen dugu lan-merkatuan eta merkatutik kanpo.

Beraz, indar guztiak jarriko ditugu egoera hau behingoz iraultzeko. Gu guztiongatik, inor kanpoan geratu gabe. Espero dezagun txosten honek, aurkeztutako proposamenekin eta borroka sindikalarekin batera, Euskal Herri aske eta feministarantz lortu nahi dugun benetako aldaketan laguntzea. LABek horren alde egiten du.

# ONDORIO NAGUSIAK

Emakumeok\* ez ditugu aukera berdinak izan eskura gaur oraindik indarrean dagoen ereduak aitortzen dituen eskubideetara iristeko. Emakumeon\* gain utzi diren zaintza lanek ekonomikoki menpeko eta sozialki ikusezin egin gaitu. Egungo sistema kapitalistaren abiapuntua patriarkala izan da eta bere garapen osoa baldintzatu du horrek. Horrela, lana sexuaren arabera banatzeak, sektore ekonomiko garrantzitsuenetatik aldentu eta guztiz prekarioak diren baldintzetan egiten diren jarduera ekonomikoetara kondenatu gaituzte. Ondorioz, emakume\* langileok, gaur egun, gutxiago kobratzen dugu, lan baldintza okerragoak dauzkagu, kontratu partzialak eta aldi baterakoak gure borondatearen kontra onartzera behartuta gaude; aitzitik, gizonezkoek gehiago kobratzen dute eta lan baldintza hobetoak izaten dituzte oro har.

Azterketa honetatik atera ditugun ondorio nagusiak honakoak dira:

- Emakumeak\* gara behin-behinekotasun eta partzialitate tasa altuenak dituen kolektiboa. Lan eremura bigarren mailako langile gisa sartzeak ez du soldatetan soilik eragiten, baita lan baldintzei dagokienean ere. Egun, behin-behinekotasuna enplegu ezegonkor eta prekarioaren sinonimo bihurtu da. Jardunaldi partzialetan lan egiten duten langileei dagokionez ere beste hainbeste esan dezakegu. Bada, emakumeon\* behin-behinekotasun tasa gizonezkoena baino zortzi puntu altuago da, eta partzialitate tasa hogeitun puntu altuagoa.

- LABek Euskal Herriko Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren proposamena eguneratu du 2021ean 1400 eurora igoz. Hego Euskal Herrian aplikagarri diren sektore feminizatuen hitzarmenak aztertuz, langile edota kategorია gehienak kopuru horren azpitik kokatzen direla ondorioztatu dugu.

- Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) langileen %8,3ak ez ditu inoiz bere lan baldintzak lan hitzarmen bidez arautu. Horietatik %75a emakumezkoa\* da. Araitze eza prekaritatearekin lotu beharra daukagu. Langile horien artean gehiengo gainera etxeko langileak dira, lan baldintza okerragoak jasotzen dituen erregimen berezi baten pean, oraindik eta egoera prekario eta kalteberagoan.

-Aipatu ditugun arrazoi guztiek besteak beste gizonezkoen soldata emakumezkoena\* baino %29,4 altuagoa izatea ahalbidetzen dute. Azken hamar urteetako bilakaera aztertuta gainera, hobekuntzarik ez dela egon ondorioztatu dugu. Sistema patriarkalak generoaren arabeko lan banaketa ezarri digu, eta lan eremura bigarren mailako langile gisa sartu gara. Ondorioak argiak dira.

- Era berean, pentsioetan ere generoaren arabeko soldata arrakala egiturazkoa da. Izan ere, pentsio sistema sortzeko garaian gizonezkoen ordainduriko lanean oinarritu zen. Aldaketak aldaketa, sistemaren oinarriek bere horretan diraute gaur egun ere. Gainera, generoaren arabeko soldata arrakalak urtez urte bere horretan jarraitzen du esan bezala. Arrazoi horiek guztiek pentsioetan ere genero arrakala sakona egotea ahalbidetzen du, soldatetan dagoen arrakala baino sakonagoa hain zuzen ere. Izan ere, gizonen pentsioak emakumeenak\* baino %68,4 altuagoak dira. Emakume\* pentsiodunen artean pobrezia hedaturik dagoela egiaztatu ahal izan dugu era berean.

# 1. JARDUNALDI PARTZIALAK ETA BEHIN-BEHINEKOTASUNA

Jardunaldiak modu erabakigarrian baldintzatzen du soldata maila, jardunaldia baxuagoa bada soldata ere maila berean apalduko da. Partzialitatea dena den soldata maila zehazten duen elementua izatetik harago doa: jardunaldi partzialetan lan egiten duten langileen lan baldintzak jardunaldi osoan lan egiten dutenena baino okerragoak izaten baitira.

2020ko datuen arabera, emakumeen\* %26k egiten du lan jardunaldi partzialetan. Gizonezkoen kasuan ehuneko hori %5,8ra jaisten da.

Behin-behineko kontratua duten langileei dagokionez, aldi baterako kontratu batekin lan egiten dutenek kontratu mugagabeen batez besteko ordainsaria baino % 30 gutxiagoko soldata jasotzen dute, batez beste. Behin-behinekotasunak ere, partzialitateak bezala, soldata mailaz haragoko prekarietatea sortzen duela gogoratu behar dugu.

2020an izurritearen kudeaketak enplegu galera handia ekarri zuen, lehen-lehenik behin-behineko enplegua galduz (izurritearen lehen hilabetean galdu zen enpleguaren %90 behin-behinekoa izan zen). Ondorioz, behin-behinekotasun tasak jaitsiera handia izan zuen, ez enplegua egonkortzearen ondorioz noski, enplegu galeraren ondorioz baizik. Hala ere, behin-behinekotasun tasa altuetan gaude oraindik Hego Euskal Herrian, eta oraingoan ere, emakumezkoak\* gara tasa altuetan gaudenak %27,2ko behin-behinekotasun tasarekin, horrek dakarren prekarietatearekin. Gizonezkoena nabarmen apalagoa da, %19,30 hain zuzen ere.

## 2. SEKTORE FEMINIZATUEN LAN BALDINTZAK

Emakumeok\* enpleguaren eremuan bigarren mailako langile garela salatu izan dugu hainbatetan. Soldata arrakalak, lan baldintza kaxkarrak, jardunaldi partzial behartuak, beirazko sabaia eta zoru itsaskorra... Hamaika ondorio jasan behar ditugu emakume\* gisa.

Hego Euskal Herrian, enpleguen generoaren araberako banaketa begi-bistakoa da. Honela, sektore edota kategoria jakin batzuetan emakumeon\* presentzia beste batzuetan baino askoz ere altuagoa da. Eta zeintzuk dira sektore horietako lan baldintzak? Galdera hori erantzuten saiatuko gara jarraian.

### Emakumeon\* presentzia gehien duten sektoreak

Oinarrizko zerbitzuak jasotzea herritar oren eskubide gisa aitortu eta berau bermatzea ezinbestekoa zaigu jendarte justuago bat eraiki nahi badugu. Gaur egun ordea, Administrazio Publikoak oinarrizko zerbitzu hauek ez bermatzeaz gain, herritarrok ezinbesteko ditugun behar horiek merkantilizatu eta eremu pribatuan kokatu dituzte. Ondorio bezala langileen lan baldintzak kaxkartzen dira eta oinarrizko zerbitzuak jaso ezin dituen herritarren multzoa zabaltzen da.

Oinarrizko zerbitzuetan lan egiten duten langile asko eta asko dira emakumeak\*:

Historian zehar emakumearen\* gain eremu pribatuan egon diren zaintza lanak merkaturatu kokatzearen ondorioz, emakumeak\* izan gara enplegu horietan sarbidea izan dugunak; lan baldintza prekarioetan eta bigarren mailako langile gisa. Eredu horri dagokionez honakoak dira aztertu ditugun hitzarmenak:

- Adinekoen egoitzetako langileak.
- Aniztasun funtzionala duten pertsonekin lan egiten duten langileak.
- Etxez-etxeko laguntzan jarduten duten langileak.

Administrazio publikoak azpikontraturiko eta publikoak behar luketen beste sektore batzuen lan hitzarmenak ere aztertu ditugu. Sektore hauek ere feminizatuak dira:

- Eusko Jaurlaritzako eskola-jantokietako kolektibitate-enpresetako langileak.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren menpeko garbitzeko kontratatetako langileak.
- Eusko Jaurlaritzaren lantokietako garbiketako enpresetako langileak.
- Eskola garraioko laguntzaileen eta jolastokiko zaintzaileen zerbitzuen enpresetako langileak.
- Osakidetzako garbiketako zerbitzua egiten duten enpresetako langileak.

Dena den, administrazio publikoarentzat lan egiten duten enpresetako langile asko eta askori ezartzen zaizkie zerbitzu pribatuetako lan hitzarmenak, publikatuta behar luketen enpleguetan lan baldintza prekarioetara kondenatuz langile horiek.

Eta hain zuzen ere, zerbitzu pribatuen sektorea izan da aztertu dugun hurrengo eremua. Nagusiki ondorengo sektoreetako langileen hitzarmenak aztertu ditugu:

- Ile-apaindegiak.
- Elikagaigintza merkataritza.
- Oinetakoen merkataritza.
- Eraikinetako eta aretoetako garbiketako.
- Ehungintzaren merkataritza.
- Okindegiak.
- Larrukigintza eta antzekoak
- Tindaketak eta garbiketak
- Farmazia bulegoak
- Jostailuen merkataritza.
- Merkataritza orokorra.
- Erosten handiak.
- Telemarketing.

## **Hilean 1400 euro soldata azpiko sektoreak**

LABek Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren proposamena berritzeko beharra mahaigaineratu du. Urteak daramatzagu gehiengo sozial eta sindikalak 1200 euroko gutxieneko soldata aldarrikatzen, bizi duin bat garatzeko gutxienekoa dela ulertuz. Urterik urte bizi garestitzen ari den honetan, eta kalkulua egiteko Europako Karta Sozialaren gomendioak jarraiki, 2021. urtean Euskal Herriko Lanbidearteko Gutxieneko Soldatak hilean 1400 euro gordinekoa izan beharko luke (Euskal Herriko soldaten batezbestekoaren %60).

Beraz, 2021. urtean hileko 1400 euro gordin baino soldata apalagoek ez dute bermatzen bizi duin bat garatzeko aukerarik. Hego Euskal Herrian langileon lan baldintzak arautzen dituzten hitzarmenak aztertuz, langile anitz dago gutxieneko soldata hori bermatu gabe, are gehiago emakumeon\* kasuan. Izan ere, aztertu ditugun sektore feminizatuetakoa hitzarmen ia guztietan daude kategoriak soldata horren azpitik.



Datu horri ñabardura bat egin beharrean gaude hala ere. 2012an Espainiako gobernuak ezarritako lan erreformak, negoziazio kolektiboaren eremua astindu zuen goitik behera. Hitzarmenen estalizazioa bultzatu eta ordurarte zuten aurreragintasan mugagabearekin amaitu zuen besteak beste. 2012tik aurrera, legez, hitzarmenak kontrakoa espresuki jasotzen ez badu behintzat, urtebetean sinatzen ez diren hitzarmenek indarrean egoteari utziko liokete. Edonola ere, dagoeneko legearen arabera indarrean ez dauden hitzarmen horiek aztertzea erabaki dugu, jakitun baikara langile askori oraindik hitzarmen horien arabera arautzen zaizkiela lan baldintzak. Baina, hitzarmen horiek beste leku askotan ez dira aplikatzen, eta Estatuko hitzarmenek edo kasurik txarrean Langileen Estatutuak ordeztu dituzte, normalean lan-baldintza okerragoekin.

Sektore feminizatuari dagokienez, honakoa da Hego Euskal Herriko argazkia. Ehunekoak hitzarmen horretan 1400 euro azpitik dauden kategorien portzentaia adierazten du eta azpiko zenbakiak hitzarmenaren edo soldata taulen urtea:

### Urtean 19.600 euro gordineko soldataren azpitik dauden kategorია kopurua

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Estatala
Adinekoen egoitzetako langileak		%50 2020	%94,12 2006		%80,77 2018
Aniztasun funtzionala duten pertsonekin lan egiten duten langileak				%31,25 2017	
Etxez-etxeko laguntzan jarduten duten langileak	%50	%20 2019			%57,14 2018
Ile-apaindegiak	%100 2006	%100 2002	%100 2016	%100 2012	
Elikagaigintza merkataritza	%62,5 2019	%100 2018	%57,85 2019	%83,33 2018	
Oinetakoen merkataritza	%25 2019	%96,67 1999			
Eraikinetako eta aretoetako garbiketak	%50 2018	%67,74 2020	%61,54 2018		
Ehungintzaren merkataritza	%40 2019	%67,44 2017	%41,07 2018	%67 2019	
Okindegiak	%40 2013	%100 2014	%4,76 2015		
Larrukigintza eta antzeakoak		%100 2007	%100 2009	%85,71 2008	
Tindaketak eta garbiketak		%100 2006			
Farmazia bulegoak		%41,67 2020		%76 2007	
Jostailuen merkataritza			%100 2006		
Merkataritza orokorra			%100 2014	%87,5 2007	
Erosetxe handiak					%100 2020
Telemarketing					%58,33 2017
Dia supermerkatuak	%100	%50	%75	%50	*
Mercadona					%75 2019

\* Estatala izan arren herrialde bakoitzerako soldata desberdinak

## • Pribatizaturiko sektore publikoak

Sektore batzuk zentzu hertsian pribatizatu ez badira ere, publikoak behar luketen sektoreei buruz ari gara, horregatik deitu diegu "pribatizaturiko sektore publikoak".

Sektore horien azterketa egin ostean, bi multzotan banatu daitezke:

- Zaintza lanekin loturiko sektoreak: adinekoen egoitzetako langileak, etxez-etxeko laguntza zerbitzua burutzen dutenak, aniztasun funtzionala duten langileekin lan egiten dutenak.

Eremu prekarizatuena dira. 1400 euro azpiko soldata jasotzen duten langileen kopuru handiez gain, sektore hauetako langileen soldata bereziki baxuak azpimarratu beharrea gaude, hitzarmenaren arabera, langile horiek hilean 893.15 euro edo 972.97 euro gordin soilik jaso baititzakete. Herrialdeko hitzarmena ez duten sektoreei Espainiako Estatuko hitzarmena aplikatzen zaie.

- Eusko Jaurlaritzarentzat azpikontrata moduan lan egiten duten eta ondorengo hitzarmenak aplikatzen zaizkien enpresetako langileak: Eusko Jaurlaritzako eskola-jantokietako kolektibitate-enpresetakoa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren menpeko garbitzeko kontratetakoa, Eusko Jaurlaritzaren lantokietako garbiketa-enpresetakoa, Eskola garraioko laguntzaileen eta jolastokiko zainzaileen zerbitzuen enpresetakoa, Osakidetzako garbiketa zerbitzua egiten duten enpresetakoa.

LABek, sektoreko langileekin bat, lan handia egin du administrazio publikoko langileekin parekatu eta homologazioaren bidean. Urrats garrantzitsuak lortu dira langileen borrokari eta negoziazio kolektiboari esker. Horren adibide dugu esparru honetako langile guztien soldatak kokatzen direla ezarri dugun gutxieneko soldataren gainetik.

Nolanahi ere, gogoratu behar da sektore horretako langile askok lanaldi partzialetan lan egiten dutela, eta partzialtasunak berekin dakarrela soldata eta lan-baldintza prekarizatuagoak izatea; beraz, sektore horietako lan-baldintzen itxurazko duintasunak asko du hobetzeko oraindik.

- Administrazio publikoarentzat lan egiten bestelako azpikontratek zerbitzu pribatuetako hitzarmenak aplikatzen dizkie euren langileei. Hurrengo atalean garatu ditugu hitzarmenok.

## • Zerbitzu pribatuetako langileak

Eremu pribatuko hitzarmenen bidez euren lan baldintzak arautzen dizkieten eta sektore feminizatuetan lanean ari diren langile gehienak duin bizitzeko behar genukeen gutxieneko soldataren azpitik ari dira jasotzen euren lanaren truke. Ondorio horretara iritsi gara hitzarmen horiek aztertu ostean. Hitzarmen guzti-guztiek dituzte hilean 1400 euroren azpitik ordainsaria duten duten kategoriak.

Hitzarmen batzuk bereziki dituzte soldata baxuak. Ileapaindegiena dugu horietatik nabarmenena. 4 herrialdeetan kategorია guzti guztiak daude hileko 1400 euro gordinen azpitik, eta gainera soldata bereziki apalak dituzte sektorean, herrialdearen arabera hileko 815,59 euro gordin eta 1286 euro gordinen artean.

Elikagaigintza merkataritzan 932 euro gordineko soldatekin topo egingo dugu, eta merkataritza orokorrean 816 eurokoekin. Eraikin eta aretoetako garbiketa ere aipatzeko modukoa dugu, izan ere, herrialde guztietako hitzarmenetan kategorien erdia baino gehiago dago proposatzen dugun Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren azpitik.

Dena den, aztertu ditugun hitzarmen kolektibo ia guztiek dituzte kategoriak gutxieneko mugaren azpitik, baita sektore feminizatu gisa jaso ez ditugunek ere, nahiz eta kategorien ehuneko baxuagoa batek jaso 1400 euro azpiko soldatak oro har. Beraz, soldatei dagokionez argazki kezkarria jaso dugu orokorrean ere.

Azpitarragarria hala ere, 1400 euro azpiko soldatarik jasotzen ez duen hitzarmenen bat bera ere ez dugula feminizatu gisa identifikatu.

## Euren lan baldintzak hitzarmen bidez inoiz arautu gabeko langileak

EAEen langileen %8,3k (55000 inguru, gehienak emakumeak\*) hitzarmen bidez inoiz arautu gabeko jardueretan egiten dute lan Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK-CRL) arabera.

Langile multzo hau nahiko multzo heterogeneoa da, sarri zerbitzu sektoreari lotua:

Etxeko langileak	% 51,9
Mediku-kontsultak eta osasun-jarduerak	%15,8
Administrazio-zerbitzuak	%7,7
Nekazaritza eta arrantza	%5,9
Kultura eta kirola	%4,0
Gainerako jarduerak	%14,7
GUZTIRA	%100

Hitzarmen bidez arautu gabeko jardueretan lan egiten duten langileen erdiak baino gehiago etxeko langileak dira (28581 pertsona 2019 bukaeran). Era berean, lanpostu ugari daude osasun-sektore pribatuaren barnean (mediku edo albaitaritza kontsultetan), kasu askotan tamaina txikiko enpresetan.

Herrialdeen arabera, 55000 langile horiek honela banatzen dira:

Arabakoak	11.500 (%20,91)
Bizkaikoak	27.800 (%50,55)
Gipuzkoakoak	15.700 (%28,54)

Arabak gainerako lurraldeek baino garrantzia erlatibo handiagoa du langile kopurua kontuan hartzen badugu. Gogorazi behar dugu Araban inoiz ez dela izenpetu bulego eta despatxuen sektorerako lan-hitzarmenik, eta ondorioz, eremu horretako langile askoren lan-baldintzak inoiz ez dira arautu hitzarmen kolektibo baten bidez.

## Euren lan baldintzak lan-hitzarmen baten bidez arautzen ez dituzten langileen multzoan 4tik 3 emakumezkoa\* da

Euren lan baldintzak hitzarmen baten bidez inoiz arautu ez diren sektoreak erreparatuz, sektore feminizatuak dira nagusi. Horren ondorioa da euren lan-baldintzak lan-hitzarmen bidez arautzen ez dituzten langileen %75 emakumea\* izatea. Kontrara, negozio kolektiboaren eraginpeko soldatapeko langileen artean gehienak gizonezkoak dira (%55,8 gizonezko eta %44,2 emakumezko\*).

Lan baldintzak hitzarmen bidez arautu gabe izateak, Langile Estatuaren lan baldintzak ezartzen zaizkiela esan nahi du. Urteko 1820 orduko lan jardunaldia, eta soldatei dagokionez hilabetean 950 euroko soldata (2020ko zenbatekoa). Beraz, langile hauek guztiak egongo lirateke LABek finkaturiko 1400 euroko gutxieneko soldatetik behera eta bereziki urrun.

Aipamen berezia merezi dute etxeko langileek. Izan ere, etxeko langileei erregimen berezia ezartzen zaie, eta ondorioz, Langile Estatuak aintzat hartzen dituen hainbat eskubiderik gabe daude oraindik aipatu langileak, besteak beste langabezia eskubide edota lan osasunaren erregulazioa. Gainera, gaueko lana erregulatu gabe egoteak barneko langilearen figura ahalbidetuz. Muturreko esplotazio egoera jasaten dute oro har, eta aintzat hartu beharrekoa dugu etxeko langileen gehiengo handi bat jatorri anitzetatik gurera heldutako emakumeak\* ditugula. Oraindik eta zaurgariago eta esplotatuago.

### 3. SOLDATA ARRAKALA

Hego Euskal Herriko urteko batez besteko soldata 27.875 euro gordinekoa izan zen 2018an. Baina generoaren ikuspegitik aztertu ezker, zenbateko horiek aldatu egiten dira. Izan ere, gizonen batez besteko soldata urtean 31.417 euro gordinera iritsi zen, eta emakumeon\* batez besteko soldata urtean 24.278 eurokoa izan zen. Gizonen soldata emakumeona\* baino % 29,4 handiagoa da beraz, hau da, urtean 7.139 euroko aldea dago bien artean.

#### Urteko batez besteko soldata gordina

2018 urtea	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Aldea
Nafarroa	26.364,75	29.546,12	22.697,59	-6.848,53
Araba / Bizkaia / Gipuzkoa	28.470,94	31.970,30	24.757,18	-7.213,12
<b>Hego Euskal Herria</b>	<b>27.875,39</b>	<b>31.417,49</b>	<b>24.278,18</b>	<b>-7.139,31</b>

Iturria: Estatu Espainoleko Estatistika Institutu Nazionala (INE). Soldata-egiturari buruzko inkesta


#### Soldata arrakala: urtez urtez mantentzen den errealitatea

Hego Euskal Herriko soldaten bilakaera aztertzen badugu, urtez urte soldatek izan duten bilakaera ikusi ahal dugu. Azken hamarkadako soldatei erreparatuta, soldata arrakala mantendu egiten dela ikusi dugu. Egiturazkoa den arazo baten aurrean gaude beraz.

#### Soldata arrakalaren bilakaera

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Batazbesteko soldata	25.050	25.590	25.970	25.920	25.910	26.210	27.070	26.940	27.020	27.760	27.875
Emakumeen batazbestekoa	21.200	21.830	22.090	21.900	21.670	21.960	22.960	22.870	22.870	23.650	24.284
Gizonezkoen batazbestekoa	27.890	28.390	29.090	29.110	29.520	29.730	30.650	30.530	30.560	31.150	31.414

Iturria: Estatu Espainoleko Estatistika Institutu Nazionala (INE)



## Soldata arrakala adierazitakoa baino handiagoa da

Dena den, soldata arrakala aztertu ditugun datuek ematen digutena baino altuagoa dela esateko arrazoi nahiko badugu. Izan ere, soldata-egiturari buruzko inkestak aldi baterako kontratuetan (edo beste edozein arrazoiengatik inkesta erantzun duen pertsonak ez badu urte osoan lan egin) soldatak urte osora doitzen ditu emaitza konparagarriak lortu ahal izateko, hau da, urtean hilabete bat bakarrik enplegatutik egon den pertsonari, urte osoan 12 hilabetez enplegatutik egon den hilabetean jaso duen soldata jaso duela ulertzen da nahiz eta errealitatea oso bestelakoa izan. Beraz, gure herrialdean dagoen behin-behinekotasun-tasa altuekin, soldata errealak baxuagoak direla ondoriozta dezakegu, eta gainera, soldatapeko emakumeon\* artean behin-behinekotasun tasa gizonezkoena baino zortzi puntu handiagoa denez, soldatetan ematen den desfase horrek emakumeoi\* gehiago eragiten digu. Ondorioz, soldata arrakala emaniko datuek erakusten digutena baino handiagoa dela baieztatu dezakegu.

## 4. PENTSIIO ARRAKALA

Ipar zein Hegoaldeko pentsio sistemak familia eredu tradizionalen oinarritu ziren euren sorreran, gizezkoen soldatapeko lanaren arabera sistemak diseinatu. Gaur egun, erreformak erreforma, sistema horiek berak dira indarrean jarraitzen dutenak, emakume\* eta gizonen arteko pentsio arrakala mantendu eta elikatuz. Gainera, soldaten atalean aztertu dugun sexuaren arabera soldata arrakalak pentsioen arrakala mantentzen laguntzen jarraituko du egiturazko aldaketak ematen ez baditugu.

2018ko datuen arabera emakumeon\* batez besteko pentsioa 880 eurokoa da, gizezkoena aldiz 1482 eurokoa. Gizezkoen pentsioa beraz emakumeena\* baino %68,4 altuagoa da, arrakala nabarmena.

Era berean, emakumeok\* jasotzen ditugun pentsioen %73,75 pentsiodunen mugimendua gutxieneko pentsio gisa aldarrikatzen duen 1080 euro azpitik dago. Gizezkoen pentsioen %33,92 kokatzen da zenbateko horren azpitik.

LABek bere programa sozioekonomikoan beste urrats bat eman eta gutxieneko pentsioaren eguneratzea proposatu du gutxieneko soldatarekin parekatuz eta 2021 urteko soldata mailara igoz. Ondorioz, 1400 euroko gutxieneko pentsioa jasotzen du proposamenak.

Erreferentzia hori kontuan hartuz, emakumeon\* pentsioen %80,81a legoke 1400 euroko pentsioaren azpitik. Gizezkoen kasuan %48,39a litzateke zenbateko hori.

### Emakumeon\* pentsioen erdia baino gehiago pobreziaren atalasearen azpitik


Pobrezia eta prekarietatea urtez urte hedatzen ari dira, emakumeok\* izanik errealitate horiek jasaten ditugun gehiengoa. Hala erakusten digute datu orokorrek, eta pentsiodunen atalean jarritz arreta datuak are eta argigarriagoak dira.

Emakumezkoek\* jasotzen dituzten pentsioen %55,55 pobrezia arriskuaren atalasearen azpitik daude, gizezkoen pentsioen %19,47 dago egoera horretan ordea.

### Hego Euskal Herriko pentsioak

	Emakumeak*	Gizonak
Pobrezia arriskuaren muga azpitik	%55,55	%19,47
Hilabetean 1.080 euro azpitik	%73,75	%33,92
Hilabetean 1.400 euro azpitik	%80,81	%48,39

Iturria: Espainiako Gizarte Segurantzaren Nazionalen Erakundea



## 5. AZKEN HITZA

Ikerketa honek sektore feminizatuen lan baldintza kaxkarrak kroniko bihurtu direla erakutsi digu, batez ere zaintzarekin lotura zuzena dutenak edota zerbitzu pribatuetako hainbat sektoretan.

Baina badira ikertu ezin izan ditugunak ere, emakume\* migratu eta arrazializatuen egoera besteak beste. Estatistikek ez dituzte egoera hauek jasotzen, sistemarentzat ikusezinak dira.

Emakume\* horiek pairatzen duten prekarietateak, diskriminazioak eta indarkeriak, beraien jatorri, klase eta generoarekin lotura zuzena dute. Izan ere, emakume\* hauen lan eta bizi baldintzak elementu hauen bidez daude erabat baldintzatuak.

Emakume\* migratuek lan merkatuan sartzeko zailtasun handiagoak dituzte. Gainera eurentzat espezifikoak diren lanak eta sektoreak daude: emakume\* migratu eta prekarizatuak izate hutsagatik dira lan horiek egitera bultzatuak, sistemak eta gizarteak berak ere ez die ematen beste aukerarik eta. Gainera, lan egiten duten sektoreak guztiz prekarizatuak daude eta ez dira ez lan eskubideak eta ezta lan baldintza duinak ere bermatzen.

Etxeko langileena da desarauturiko sektore kalteberenetarikoak: bakarrik lan egiten dute, euren lan zentroak etxe pribatuak dira, horrek dakarren zaurgarritasun eta ikusezintasun maila izugarriarekin. Erregimen berezia dute eta ondorioz, gainontzeko langileek baino eskubide gutxiago: langabezia prestaziorik ez dute, eta ez zaie lan osasuneko legedia aplikatzen. Kaleratzeko arrazoiak oso zabalak dira eta indemnizazioak oso apalak. Gainera, barneko langileak daude esklabutza egoera betean. Hau guztia nahikoa ez balitz, onartzen zaizkien eskubide urriak ere urratu egiten zaizkie kasurik gehienetan eta indarkeria modu sistematikoan jasaten dute.

Kontutan izan behar dugu emakume\* langile hauek askotan egoera irregularrean daudela, euren egoera erregularizatzeko prozesu zail eta luzean urteak ematen dituztela, eta honek berriz ere haien lan eta bizi baldintzetan eragin zuzena dauka.

Beraz, aztertu ditugun eta aztertu ezin izan ditugun baina errealitatea diren egoera hauek guztiek eragiten dute genero arrakala, eta honen ondorioz soldata arrakala. Soldata arrakala arazo politikoa da, sistemaren tresna da, emakumeok\* egiten ditugun lanei balioa kentzeko; kontziliazio neurriak emakumeok\* eska ditzagula bultzatzeko, emakumeoi\* jardunaldi partzialak eta behin-behineko kontratuak inposatzeko, lan merkatutik botatzeko eta zaintza lanak geure gain hartzeko.

Hau guztia kapitala eta instituzio neoliberalen aliantzarekin egiten ari da, interes berdinak defendatzen dituztelako; sistema kapitalista heteropatriarkalaren interesak. Ez zaizkie ez bizitzak, ez zaintza lanak eta ezta zaintza lanak egiten dituztenak ere axola.

Ratioek hobetu gabe jarraitzen dute, etxeko langileen aldarrikapenen aurrean entzungor dira agintariak. Ez dira zaintza lanak aitortu, ez sozialki, ez politikoki ezta ekonomikoki ere. Aitortzeak lan baldintza hauek guztiak hobetzea ekarriko luke, eta jakina da ez dela egin, izan ere egoera okertu eta kronifikatu egin da.

Hau guztiagatik ezinbestekoa da zaintzaren demokratizazioaren alde pausuk ematea, zaintza lanak jendartean modu justu batean banatzea, sistema publiko komunitario bat eraikitzea gaur egun ematen den prekarizazioarekin eta pribatizazio eta negozioarekin amaitzeko.

Ezinbestekoa da sexuaren arabera lan banaketarekin amaitzea eta lan eta enplegu guztien birbalarizazio bat egitea. Horretarako bizitzaren sostengarritasun faktorea aplikatuko genuke; horrek zera esan nahi du, lan eta enplegu horiek bizitzaren sostenguan duten eraginaren arabera baloratzea.



Eta hau gauzatu arte, emakumeekin\* zor patriarkala dagoela esaten dugu: hein handiago edo txikiago batean, zaintza eta bizitzaren sustengurako beharrezkoak diren lan guztiak emakumeon\* bizkar eta doan geratu dira eta lan hauetatik sistema kapitalistak zein jendarte osoak atera du probetxua. Honek emakumeok\* lan merkatuan menpeko eta bigarren mailako egoeran egotea ekarri du. Egoera hau zuzentzeko, zor patriarkala deitu diogun zuzenketa faktorea aplikatzea proposatzen dugu.

LAB bere borrokan berresten da eta emakumeontzat\* lan baldintza duinak, etxeko langileentzako lan hitzarmena, langile migratuen egoera erregularizatzea, zaintzaren merkantilizazioarekin amaitzea eta genero soldata arrakalarekin amaitzea exijitzen du.